

agian beste

bostehun gehiago !

TXILLARDEGI

Bostehun ale argitara dituzue jadanik. Zorionak ! Eta, bejondeizuela ! Zuei esker, euskaltzale eta abertzaleakunari dagokionez, Ipar Euskal-Herria ez baita egun lehen izan zena. Zinez : ENBATA-k du iratzartu.

Gertakari honi buruz zerbaiteko eskatu didazue. Eta, zer esango ? zertaz mintzatuko ?

Eta egoki iruditu zait, karia honetara bereziki, ENBATA-ren hastapen haiek Hegoaldeko kook nola ikusi genituen gogoraztea.

Presondegitik atera, eta 1961-eko Urtarrilean Iparraldean ihesi iritsi nintzenean, egon ez zegoen «Enbata»rik : nahiz-eta Ximun Haran eta euskaldun ikasleen «Embata»ren ondoan geroko enbataiarrak elkartzen hasiak baziren ere.

Zer zen Iparraldea enetzako ? Ezer gutxi ; abertzale bat gehienez. Bidasoako muga ez baita hor alferrikeri egon. Bertako euskalkien kutsuez oraturik, poz handia eta sakona eman ohi zidaten Garaziko eta Hazparneko teatro-saio apalek. Horrera-koan, eta orain oroitzen naizenez, huraxe izaten zen, haserako aste hits haietan, ene poz bakarra ; Euskal Herriaren hatsa orduantxe senditzen bainuen ongienik.

1961-ko negu hartan, lehenagotik ezagutzen nituen abertzale bakan batzuek egin zidaten harrera anaikorra : Piarres Xarriton adiskideak, garai hartan Euskaldun Gazte-riaren zuzendaria ; Ximun Haranek, pilotari gorena urte haietan ; Pedrito Xoribit hazpandarrak, familia-loturaz nigandik hurbil ; eta besteren batek. Jean Louis Davant ezagutzen nuen ere jadanik, Donostian lehenago gurutzatua ; eta zenbait aldiz ere mintzatua nintzen Zumalabe, Bardesi, Montzon eta Piarres Lartzabalekin. Hori zen dena.

Ondoko urteetan ageriko zenez, ihesle-uhin berriaren aintzindarietako nintzen, Beltz ikusten nuen dena neure aurretik ; nahiz Galvao-ren ontzi-lapurketak Salazar-en hiletako gogoratzten bazuen ere. Noiz arte etxetik uxatua ? noiz arte neure engandik berezita ? Lan-bila Parisera-ko treina hartu nuenean, ezer ez nekien. Eta, joan aurretik, Baionako Alsace-Lorraine kalean ezagutu nuen «Delegacion del Gobierno Vasco» bulego hila, ez zen benetan inorentzako bihotz altxagarri ; ezta Beyris-en PNV-ak billa batean atxikitzen zuena ere. Are gutxiago ETA jaio-berri eta mada-rikatu haren izenean inor presentaturik !

Abentura harek 16 urte luze iraungo zuela esan balidate, kolpe gaitza emango zidaten eskierki !

* * *

Baina Parisen 1961-1962-en barrena pasa nuen urte parean, gauza garrantzitsu bat gertatu zen Iparraldean : «Embata»-ko abertzaleek, erdi isilean, eta Itsasuko jairen lehen saio gisa edo, Iparraldean

Aberri-Eguna ospatzea erabaki zutela. So-sik ez nik etorri berri hartan, eta Parisen gelditu behar ! 1962-ko Aberri-Eguna apal honetaz inork ez du inoiz ezer esaten ; baina 1960-an hasitako ereintzaren lehen fruitua (Lafitte-ren «Aintzina» salbu), abertzale-bilera huraxe izan zela iruditzen zait.

Eta 1963-an, horretarra, handiro, alai-kiro ere bai, Itsasu-ko zuhaitz landaketa (Haran ipartarren izenean, Madariaga hego-tarrenean) eta europar etnia ukatuen agurra (bretoin, okzitano, eta beste) gertatu zirenean, piztuak ziren Lapurdiko xoko zoragarri hartan bai ENBATA talde burru-kalaria, bai abertzaleakunaren garra. Eta Iparraldeko loraketa hura zorabiatu-rik begiratzen genuen Hegoaldetik etorri berriak gineñok.

Ximun Haran-en ondoren, eta berehala gotorri elkarturik, Jakes Abeberri, M. Burukoa, J.L. Davant, Arramendi ager-zen ziren. Xehetasun ohargarria : emakume batzu gailen lehenengo ENBATA hartan Kristian Etxaluz, geroxeago ETA-rekin nahasia eta Iruñan preso-aitxatua ; Claire Noblia, ondoko urteetan «Seaska»-ko Lehendakari izana ; Martxelin eta Marilu Arbelbide heletarrak, Anamari Ithurralde erdi mondragotartua segidan... Multzo sutsua izoztegi betean !

Besterik ez ote ? Bai eta ez.

Xarritonek ez zuen apezkeriarik egin nahi, eta haseratik emana zuen kanpo bere burua. P. Lartzabal bera ere, haseratik beretik talde berriaren partaide izanaga-tik, izkiriatazaila soil jarraitu nahiago zuen. Telesforo Montzon eta ETA-ko sortzaileak, arrazoin mota askorengatik batera, aparte gelditu ziren ere bai ; nahiz bihotzez bat, eta kultur-lanetan anaturik eta baturik.

Eta, Mixel Labeguerie ? Hizlari jaioa, orduan bere kanta berriengatik oso fama-tua eta ezaguna (harengan ikusi uste zu-ten batzuek gure Lehendakari berria J.A. Agirrerren heriotzakoan), Labegueriek bere-hala abandonatu zuen ENBATA. Itsasu-ko Agiri-tik sei hilabetetara deputatu-gai presentatu zenean, ENBATA-koek berek atxiki zuten Kanboko bere etxean bertan hauteskunde-bulegoa. Baina hautatua ger-tatua zen memento beretik hasi zen nabar-menkiro urruntzen ; eta berehala ere Baio-nako «Euskal Idazkaritza»-ko lehendaka-ritza bera uzten zuelarik.

Eta, besterik ? Gerla denborako aber-tzaleek, Fraitziako gobernuarekin omen zituzten harreman «onek» (?) segurtatze-kotan, uzker, hotz, agertu ziren ENBA-TA-ri buruz. Izen bat berezi behar : Teles-foro Montzon ; euskal gobernuaren zenbait urte lehenago utziz geroztik, Iparraldeko euskal teatroaren sustaketan ari izana.

Eta ENBATA-koen ereintza hasi zen. Eta komunizatatzat eta fakitatzat salatu zituzten batera. Beti bezala !

Baina egiaren ohoretan esateko : behin



eta berriz izan dugu Hegoaldeko EN-BATA-rengan laguntza fina : bai 1964-an bai 1971-an, bai 1975-an, bai gaur ere. Mugarik ez ENBATA-koentzako. Guretzako, aurtengo Aberri-Egunan bezala, muga hori berriz ere ba dagoela pentsa badaiteke ere !

ENBATA-k sortu zuen, Hegoaldeko aberkide gazteen laguntzaz, arestian aipa-tu dudan Euskal Idazkaritza delakoa, 1963-az geroztik Euskara Batuaren oi-narriak ipintzen hasi zena. ENBATA-k hasi zuen, kantu-billetaz eta kantu-berri-kuntzaz, gaurko euskal kanta berriaren bultzada. ENBATA-ko jendeak eraiki dute Iparraldeko Ikastolen Elkarte. ENBATA-ko gizonak eta emakumeak izan dira, gero berezi badira ere, EHAS alderdia sortu dutenak ; eta ENBATA-n ari izanak dira Mende-Berri eta beste sortu dutenak. Herri xeheak ongi daki hori ; eta Iparral-dean edozertan euskal giharrea erakusten duenaz, hauxe esaten du beti : «Hori Enba-ta duk».

gorabeherak izan dira, debekatuak eta etendurak ere bai.

Baina alienazio mota guztiek hondatu-tako lur idor eta malkorretan egin zuen ENBATA-k abertzaleakunaren ereintza ; eta gaur landarea hozitu egin da, hazten ari da, adar desberdinak ere ba ditu. Eta hau ohore eta eskergarri zaio eta izanen zaio beti ENBATA-ri.

Horrengatik, eta bihotzaren erditik : 1000. garren alerako bidean atxik ! Biba ziek !

Txillardegia.

«ENBATA»

Hebdomadaire Politique Basque
3, rue des Cordeliers 64100 BAYONNE
Tél. 25.68.03

Abonnement d'un an :

Etat français à partir de F. 90
Europe Maghreb à partir de F. 120
Afrique (avion) à partir de F. 130
Amérique (avion) à partir de F. 140
Euskadi Sud - États espagnols :
à partir de F. 120 (2000 pts)

Abonnement Spécial :

Étudiant - Apprenti : F. 70

C.C.P. 198-346 BORDEAUX

Photos Filipe - Dessins Etxebeltz

Publicité au Journal

Responsable de la Publication :

Jean «Koko» ABEBERRY

Commission Paritaire : 38 226

Imp. Photograv. du Sud-Ouest

B.A.B. - 64600 ANGLÈT